

# Emakumeentzako Jabekuntza Eskola

*Escuela de Empoderamiento para Mujeres*

TOLOSAKO UDALA
BERDINTASUN SAILA

TOLOSA2015

Emakumeek gizartea eraikitzeko baldintza berberetan parte har dezaten sortu zuten Emakumeentzako Jabekuntza Eskola. Elkartzeko, eztabaidatzeko eta ikasteko gunea da, eta emakumeei zuzentzen zaie, munduan duten egoerari eta gizartera ekarri dezaketenari buruz hausnartzeko. Zortixarrez, zifrek, azterketek eta ikerketek ez dute gezurrik esaten, eta XXI. mendean oraindik emakumeok gure bizitzetako alor guztietan diskriminazioa jasan behar dugu.

Gure helburua potentzialtasuna oinarri hartuta lan egitea da. Jabekuntza kontzeptua Latinoamerikan sortu zen. Jabetza eta boterearekin lotura duen arren, esateko, egiteko, pentsatzeko, erabakitzeko eta abarretarako boterearekin dago lotua. Beraz, xedea hausnartzeko, ikasteko eta ekiteko espazio bat sortzea da. Baina ezagutzak taldean sortuko dira, partaidetza oinarri hartuta, eta emakumeen esperientziak behar duten tokia izango dute Tolosaren, gure herriaren, historia osatzen duten kontakeretan.

## Ikastaroak

**Literatura eta generoa.**
Emailea: Mertxe Trantxe.
Klaseak: hilean bitan.
Taldea osatua dago.

Pentsalari feministek eta, oro har, emakumeek gizarteari egindako ekarpenen lekuko nagusietako bat izan da literatura. Virginia Woolfek, Bronte ahizpek eta Mary Shelleyk idatzizko hitza erabili dute askotan, modu burutsuan, emakumeen egoera zer zen eta, oraindik ere sarritan baden, jakinarazteko.

Ikastaro horretan, gainera, emakume idazle bikainek literaturari ekarpen handiak egin dizkiotela ikusiko da, baina beren sexuagatik soilik ikusezin bihurtu dituztela.

**Tolosa, Berdintasunaren Hiria**
Emailea: Hiria kolektiboa
Datak: Lehenengo tailerra martxoaren 9an, arratsaldeko 5etan.

Frogatuta dago emakumeak eta gizonak toki beretan ezberdin bizi direla. Generoaren inguruko rolengatik eta estereotipoengatik, espazioetan ezberdin bizitzen erakutsi digute. Adibidez, garraioa ez dugu berdin erabiltzen; gizonek autoa gehiago erabiltzen dute eta emakumeek garraio publikoa; toki batzuetako argi ezagatik, emakumeek erasoak edo sexu erasoak jasateko aukera gehiago hautematen dituzte. Guzti honi buruz hausnartu nahi da, tailerrak, bilerak, topaketak...egingo dira.

Ikastaro hauek Emakumeentzako Jabekuntza Eskolaren hasiera izango dira. Eskolaren egoitza Cecilia G. de Guilarte Helduen Hezikeita Iraunkorreko eskolan (HHI) izango da. Besterik adierazi ezean, ikastaro guztiak HEIn izango dira, salbuespen batzuk izan ezik.

Dantza eta etxe langileentzako ikastarorako taldea osatu behar, horretarako izena ematearekin nahikoa da, ikastaroak doan dira.

Eman izena interesatzen zaizuenean, eta taldeekin harremanetan jarriko gara ordutegiak eta bestelakoak egokitzeko.

**Etxeko langileen sarea aktibatzea.**
Emailea: Bilboko Etxeko Langileen Elkartea
Datak: zehazteke.

Etxeko langileak, soldata baten truke etxeko-lanak egiten dituzten emakumeak, ez daude Langileen Estatutuan jasota. Langile horiek erregimen zehatza dute, eta, ondorioz, lege-linbo batean egoteaz gain, beren lan-egoera hobetzeko baliabide gutxi dituzte. Lanaldi amaigabeak izateagatik, medikuarengana joateko arazoak izateagatik, kontraturik ez izateagatik, Gizarte Segurantzan alta emanda ez egoteagatik emakume asko esklabotasun egoeran daude.

Bilbon etxeko langileen elkarte batek etxeko langileak, abokatuak eta unibertsitateko irakasleak bildu ditu, eta elkar laguntzeko sareak sortu ditu, langile askoren egoerak konpontzeko. Ikastaroaren helburua Tolosako etxeko langileen egoera ezagutzea da, horien lan-egoera hobetze aldera.

**Jabekuntza gorputzetik:** Afrikako dantzak.
Emailea: Anne Agirre eta Josebe Iturrioz
Datak: zehazteke.

Dirudienez, berdintasun formala lortu duen gizartean estereotipoak eta rol sexistak mutatu egin dira. Mutazio horiek hautemateko zailagoak dira, gazteenei eragiten dietelako batez ere. Edertasun-ereduak eta estereotipoen erradikalizazioa, legediaren markatik irten, eta hedabideetatik sartzen dira, bideojokoen eta gazteei zuzendutako bestelako elementuen bidez. Gaurko estereotipoak eta rolak zuzenean gorputzaren ingurukoak dira, are gehiago, gazteen gorputzen ingurukoak. Ikastaro honen bidez, jabekuntza gorputzetik bultzatu nahi da. Hau da, gorputzarekiko harreman osasuntsua sortzea, arketa egitea eta estereotipoek neska gazteei nola eragiten dieten eta zer egin hausnartzea.

Litekeena da, taldeak nahi badu, jendearen aurrean dantza ikuskizunen bat ematea.



## Harremanak:

**HHI**
Igaralde 23, 20400 Tolosa
Tel.: (+34) 943 672 660
Helbide elektronikoa:
012648aa@hezkuntza.net

**Berdintasuna Tolosako Udala**
Tolosako Udala, Plaza Zaharra 6B
20400 Tolosa, Tel.: 943 654 466

**(Josebe Iturrioz)**
berdintasuna@tolosakoudala.net
http://berdintasunatolosakoudala.blogspot.com